

Amasa-Villabona... Bai iragan ona!

LUMAINA

Erlijioa (eta bi)

10 zbk.

2005eko urriaren 20



Amasako Ostiral Santu arratsaldeko prozesioan, Maria Magdalena Ama Birjina eta Maria Cleasas. Juanita Urruzola, Kontxi Aiausti eta Maria Teresa Iraola

Elizaren sakramentuak izan genituen hizpide aurreko aldizkarian. Ereljioak duela berrogeita hamar bat urte zuen indarra sumatuta, bi zenbaki eskaintzea beharrezkoa ikusi dugu. Oraingo honetan, beste hainbat ohituraren berri dakargu: Mezak, sermoiak, infernu bel-

durgarria, apaizak, monagilloak, serorak, misioak, prozesioak edo kongregazioak izango ditugu mintzagai, besteak beste. Hainbat adierazpenek ez dute galbiderik, sarreratxoak luzatu gabe, beraz, ohitura haien berri ezagutzera gonbidatzen zaituztegu.

MEZA, GOIZEAN GOIZETIK

Goizean goiz hasten ziren mezak eta egunero-egunero izaten ziren, gainera. Ordu ezberdinetan eta asko. "Villabonan aspaldi batean, goizeko seiretan izaten zen lehen meza igandetan, astean berriz, seirak eta laurdenetan. Astean beti ere, igandetan baino gutxiago; hala ere, bete-bete eginda egoten zen eliza". Lehen elizkizunerako goizeko bostak eta erdietan irekitzen ziren elizako ateak. Sakristauaz gain, hainbat urteetan, Pako Etxenike arduratu zen lan hori betetzeaz. "Nire aurretik, aita ere aritzen zen lan horretan, hura hil zutenean, nik hartu nuen bere ardura. Atea zabaldu eta elizako kanpaiak 'argiezkilak' jotzen genituen: tan-tan-tan-tan". Egunean zehar hiru aldiz jotzen ziren; goizean eguerdian eta iluntzean. "Azken kanpaiekin, 'Ave Marietan etxera' esaten zen eta kanpaiek jotzerako, etxerako bidea hartuta egon behar genuen badaezpada".

Asteguneko mezak ordu erdikoak ziren. Igandetakoak eta jai egunetakoak luzeagoak, ordubetekoak-edo. Latinez izaten ziren meza guztiak, sermoia izan ezik. "Sermoia euskaraz edo gaztelaniaz egiten zuen apaizak Villabonan. Amasan euskaraz beti, baita gerra eta gero ere". Gerra



Joxe Ugartemendia

"Ttiki hura etorri zenean, sermoirik ere ez zen euskaraz egiten. Aitak elizara joateari utzi egin zion orduan"

ondorenean, herri gutxitan entzun zitekeen sermoia euskaraz. Amasa zen herri horietako bat. "Etxean bizitakoa azalduko dut. Gure aita oso sinestuna zen, urte askoan hartu zuen parte elizbarrutiko ekintzetan. Gero ttiki hura -Francoz ari delarik-etorri zen eta sermoirik ere ez zen euska-

raz egiten. Aitak elizara joateari utzi egin zion orduan" azaldu du Joxek. "Apaizak jendeari espaldan emanek eskaintzen zuen sermoia aldarean, inoiz ez, aurrez aurre, entzuleei begira". Villabonan astean nahiz asteburuan hiru meza izaten ziren, apaiz ugari zegoenez, txandakatu egiten ziren eta bakoitzak bere tarte hartzen zuen. "Astean zehar, goizeko seirak eta laurdenetan izaten zen lehenengo meza, zazpiretan bigarrena eta zortziretan hirugarrena. Jai egunetan, seiretan lehenengoa, zortziretan gero eta meza nagusia hamarretan". Amasak ez zuen ordutegi bera, "astegunetan goizeko zazpiretan izaten zen lehen meza. Igandetan, berriz, zortziretan eta hamarretan".

Mezetara misala eskuan hartuta joaten ziren garai hartako emakume denak. "Gizonen batzuek ere eramaten zuten baina, gutxiengoak". Ohitura kontua zen, "apaizak latinez esaten zuena, misalak gaztelaniaz edo euskaraz idatzita zekarren. Apaizaren hitzak ulertzen laguntzen zigun". Kantuen letrarik ez zuen ekartzen liburuak, "orduko mezatan, koruak abesten zuen batez ere". Amasako elizara Villabonako abesbatza igotzen zen kantatzerara.



Misalá eskuetan.

APAIZEN SERMOIAK ETA INFERNUA

Astean apaiz bakarrak ematen zuen meza, asteburuan gehiago etortzen ziren eta askotan, apaiz batek meza eman eta, bestea aritzen zen sermoia egiten. "Hasiera-hasieran Amasakoa zen erretorea, horregatik dago Amasan erretore-etxea. Erretore hura Villabonara etorri zen gero". Amasan hiru erretore omen zeuden aspaldi batean. *Lumaretarrek* ezagutu zituztenak ondorengo

hauek: Amasan on Juan Zabala eta on Jose Baztarrika, "urte asko egin zuen on Josek Amasan, Jesus! On Juan hil eta gero, bataiatu zuen lehen haurra Julian Mendizabal amasarra izan zen". Villabonan on Leandro eta on Mateo erretoreak ezagutu zituzten. "Larre baserriaren ondoan automobilak harrapatuta hil zen on Leandro. Zorte txarra izan zuen, auto bat pasako

eta... harrapatu!" Erretoreei apaizek laguntzen zieten. Bat baino gehiago ezagutu zituzten Amasan eta Villabonan. "Nola eduki ote zuten horrenbeste urtean horrenbeste jende hain lotuta? Urtebete-edo izan balitz sikiera... Gogorra zen hura eta izugarriko beldurra sartzen zitzaigun pulpilotik apaizen sermoiak entzundakoan. Ba al dakizu ze sermoi egiten zituzten Amasan?"



Pello Iribar

"Sua zegoen lekua zen inġernua. Hara iritsitakoan, sutan erre eta erre baina, sekula erretzen bukatu ez. Horixe zen inġernua, betirako sufrimendua"

On Romanen sermoiko mezu batzuk gogoa dituzte oraindik ere: "Bikote bat ezkaratzean haragikeriatan topatu eta hilda geratu ziren biak' edo 'nik gaur goizean ikusi dudana, nik gaur goizean ikusi dudana eta nik gaur goizean ikusi dudana!!!'. Gu denak aho zabalik eta izututa. Erantzuna, 'neska bat bizikletan. Pekatu galanta'. Apaizaren azaltzeko modua zorrotza zen eta gu guztiok seko ikaratuta. Pekatu eginez gero inġernura!" Eta zer zen inġernua? "Sua

zegoen lekua. Hara iritsitakoan, sutan erre eta erre baina, sekula erretzen bukatu ez. Horixe zen inġernua, betirako sufrimendua. Orain barre egiteko kontua da baina, garai hartan barregure gutxi!! A ze beldurra apaiza inġernuaz hizketan entzuten genuenean!". Ohiko mezez gain, ejerzizioen garaian sermoi gehiago izaten zen. "Ejerzizioak egokitzen zirenean, zortzi egunetan segidan izaten ziren sermoiak. Erretoa aurrean jarrita, egunero joan behar izaten genuen esanak entzutera".

Maritxuren hitzetan on Romanen sermoiak ziren politenak, "luzeak behintzat bai" gehitu du Pakitak. "Jende guztia harengana joaten zen konfesatzera, ez baitzen besteak bezain gogorra. Gizajoa goizeko ordu biak arte igual egoten zen konfesionarioan. Etxetik ere ekarri izan zuten mutil gazteek, komunioa hartzeko beharrezkoa baitzen aurretik konfesatzea". Komuniorik hartzen ez zuenak ere, urtean behin pazkoazkoa egiten

zuen. Pazkoaldian, nahi eta nahi ez, komunioa hartzera behartuta zeuden, "obligazioa zen", konfesatu egin behar lehenago ordea.



On Jose Baztarrika, omenaldia egin zioten egunean. Atzean on Epifanio.

KONFESIOA, PEKATUEZ LIBRATZEKO

Komunioa hartu baino lehen, konfesatu egin behar zen lehenik. Txanda bakoitzean, gainera. Eta, goizeko seiretako mezetara zihoana nola moldatzen zen? "Apaiza bostetarako han izaten zen". Eta puntu honetara iritsita, apaizari zer esaten ote zioten galdetu gabe egin geratu. Lehen erantzuna "gezurra franko" Joxeren ahotik. Gainerako guztiak barre egin dute, oso urrutik ez dabilela azalduz. "Umetan, etxean lotsagabekeriak egin genituela, amari txokolatexukaren bat kendu geniola eta horrelakoxe kontuak. Geroago, pentsamendu txarrak izan genituela, mutilen batekin dantza egin genuela edo besterengandik gaizki esaka ari-



Maria Luisa Zalakain

"Jai batean plazan dantzan aritu nintzen, intsignia eta guzti. Konfesatzera, 'dar-dar-dar', beldurrak airean joan nintzen"

tin ginelan". Neskari edo mutilari musu ematea pekatu handia zen oso, "halakoren bat eginez gero, elizatik eta kongregazioetatik kanpora, zuzenean gainera". On Epifanio apaiza oso zorrotza omen zen horrelako kontuetan. Hara Maria Luisak kontatu diguna, "Acción Católicaak ginenok intsignia moduko bat genuen. Jai batean plazan dantzan aritu nintzen, intsignia eta guzti. Konfesatzera, 'dar-dar-dar', beldurrak airean joan nintzen eta konfesatu ondoren apaizak, '¿y qué más?', 'nada más' nik. '¿Y qué más?' berriro hark. Ni lotsatuta. Batean, 'tú has bailado' esan zidan. Nik, gezurrik ezin esan eta, baietz. Etxera joateko eta intsignia entregatu behar niola. Nik ez nion itzuli eta on Epifanio kalean ikusten nuen bakoitzean, korrika alde egiten nuen".

"Konfesionarioaren ondoan jartzen ginen denak. Emakumeek saretik edo kortina-

tik beste aldera hitz egiten genuen 'portsiakaso', gizonak apaizarekin parez pare aritzen ziren". Egia guzti-guztia ez omen zuten kontatzen baina ia guztia bai, beldur handia baitzuten, "guztia pekatua zen eta egindako pekatuak esan gabe hilez gero, 'inġernura joango zara' zen erantzuna. Ikaragarriko beldurra genuen. Pentsa, garai hartan pertsona bat baino geratu burutik nahastuta. Neska askok dardarka jotzen zuten konfesionarioko sarea. Apaizak 'pekatu handia dakar honek' pentsatzeko moduan. Urduri jartzen ginenean, erdia esatea ahaztu igual eta segidan berriz ere konfesatzera, badaezpada ere, infernutik



libratzeko. Konfesatu eta gero, egindako pekatuak barkatzeko, penitentzia ematen zuten apaizak. Pekatuaren araberako errezo mordo egin behar zen eta batzuek bakkarik ematen zuten absoluzioa. Hori bai, aurretik pekatu gehiago egingo ez zenu-

la ziurtatu behar zenuen". Apaizek kontu asko jakiten omen zuten, "etxeko kontu asko ateratzen zen. Dena". Eta galdetu ere denetik egiten zuten, "ezkondu eta gero, gertatu izan zitzaigun senarrak eta biok zenbat bider egiten genuen galdetzea. Urtean

behin konfesatzea nahi eta nahiezkoa zenez eta herrikoari erantzuteak lotsa ematen zigunez, behin baino gehiagotan joan ginen Tolosara konfesatzera. Tolosako apaizari erantzun eta absoluziorik ez ematea ere gertatu zitzaigun".

OFRENDAK ETA BEDEINKAZIOAK. MONAGILLOAK ETA SERORAK



Pako Etxenike

"Meza izaten zenean, laguntzera joan egin behar. Apaizari arropak prestatu eta sotana janzten laguntzen genion"

"Mezetan alimentuen ofrenda izaten zen. Kandelak, ogia, erroskak edo erroskilak eramaten ziren gehienetan. Dirurik ez baina, bestelako jakiak ere bai, batzuetan. Nahi zuelako ekartzen zituen jendeak. Apaizaren estolari musu eman eta 'pater noster' esanaz bedeinkatzen zuten apaizak gerturatutakoa". Ofrenda asko izaten zenez, ogiz edo erroskaz betetako hiru bat zaku erraz osatzen ziren meza nagusiaren bukaeran. "Amasako monagilloek Villabonara ekartzen zituzten bildutako zakuak. Berebiziko ogi piloa biltzen zen eta nolabait banatu egin behar" dio monagillo lanetan zazpi urtetatik aritu zen Pako Etxenikek. "On Salvador apaizaren monagillo izan nintzen ni, gero on Roman jarri zen". Monagillo bezala Pakok bizitako pasarte polita segidakoa, "arrautzak baserri guztietan izaten ziren eta askok ematen zizkiguten apaizari eramateko. On Romanen etxera arrautzak eramatera joan ginenean,

ardo-goxoa atera zigun 'beste bat edango duzue eta beste bat eta... ' gu mutil kokorrrak, edan eta edan, azkenean moxkor-moxkor eginda itzuli ginen etxera". Eta zer nolako lana egiten ote zuten monagillo bezala? "Meza izaten zenean, laguntzera joan egin behar. Apaizari arropak prestatu eta sotana janzten laguntzen genion, baita mezetan behar zituen tresnak antolatzen ere. Mezetako diru bilketa egitea ere monagilloaren lana zen. Eltzetsu moduko ontziak pasatzen genituen eserlekutik eserlekura. Guk irekitzen genituen gero ontzi haiek. Hilean bost pezeta jasotzen genituen trukean". Eliza txukun mantentzeaz serora arduratzen zen, "mezak irauten zuten bitartean, kandelak itzal ez zitezten begiratzen zuten, besteak beste". Villabonako serorak Mikela Aranzadi izena zuen, Amasakoak Felixiana Jauregi, "on Jose Bastarikaren neska zena". Azken urteetan Luxxi Elola aritu da serora lanetan.

San Juan inguruan, gari-bilketa egiten zenean, monagilloek lagunduta, sorokak bedeinkatzera joaten zen apaiza. "Arrautzak eta oilaskoak oparitzen zitzaizkion gero apaizari. Sasaki eta guzti joaten ziren, beraz, bedeinkazioa ematera". Ama Birjinaren egunean ere ohitura berezia bazen, "garai batean, baserriarrek asto gainean jarrira eramaten zizkieten oilaskoak Ama Birjinari. Oilasko piloa. Urte guztian apaizak nahikoa oilasko jateko modua izango zuten... Baserriarrek

eskuratzen zuten onena apaizarentzat izaten zen: fruiturik eta barazkirik onenak... Oro har, uztarik onena. Esaterako, pikuondoa pikua ematen hasten zenean, 'hara ze pikua onak. Batzuk apaizari emango dizkiogu', oso kontu arrunta zen hori". Uzta ona jasotzen jarraitzeko esperantzan eta esker onez egiten zen. "Denek ematen genion ahal genuena apaizari baina, bazeuden Amasan konfiantza gehiago izango zuten pertsona jakinak ere: Inaxio Otegi, Frantzisko Laskurain edo Aldeiturriko Bittor". Apaizari bezala, medikuari ere begirune handia zitzaion eta sendagileak ere jasotzen zuten uzta onaren fruiturik.



On Daniel apaiza eta Manu Sorrondegi monagilloa elizkizunean.

ELIZAREN MANDAMENTUAK ETA BESTE

Elizak bost mandamentu agintzen zituen, "nahi zuten bezala edo ondo zetorkien moduan mugitzen zituzten, elizarenak zirelako". Ederki gogoratzen ditu bostak ala bostak Maria Luisak, gaztelaniaz, erakutsi zioten moduan:

1. Igandero eta elizaren festa egunetan meza osoa entzun.
2. Gutxienez, urtean behin konfesatu eta gehiagotan, hiltzeko arriskuan edo peka-

tuan egonez gero. Baita komunioa hartu behar izanez gero ere.

3. Aste Santuan komunioa hartu edo pazkoazkoa egin.
4. Elizak agintzen duenean baraua egin. (Bijilia ostiraletan izaten zen eta baraualdia Ostiral Santu egunean eta Hauster Egunean).
5. Jaungoikoaren elizari apaiz-dirua ordaindu.

Elizaren mandamentuez gain, aurreko zenbakian hitz egin genuen sakramentuak bete behar ziren eta, Jaungoikoaren hamar mandamentuak ere bai, "Moisesek tablan jarritakoak. Haiek ezin ziren inola ere aldatu, Jaungoikoarenak zirelako". Hamar mandamentuak bi nagusitan biltzen ziren: "Jaungoikoa gauza guztien gainetik maiteko duzu bata eta, lagun hurkoa zure burua bezainbeste maiteko duzu, bestea".

APAIZ-DIRUA ETA BULA



**Pakita
Laso**

"Bula hartzen ez bazenuen, urte guztiko ostiraletan egin behar zenion haragiari barau"

Hiru hilabetetik behin, apaiz-dirua (diezmos y primicias) deitzen zitzaiona biltzen zen. Orduan ez zegoen soldatarik eta apaizarentzako dirua modu horretan biltzen zen. Dirua ematea ez zen obligazioa baina, gehienek ematen zuten. "Apaiz-dirua ordaintzen ez zuen bat baino gehiago geratu zen hileta elizkizunik gabe. Eliza gogorra zen".

Amasan Organistanekoa etxez etxe ibiltzen zen apaiz-dirua biltzen. Villabonan, berriz, erretoire-etxera eramaten zen dirua eta erre-ziboa jasotzen zuten trukean. Borondatea ematen zuten, bakoitzak ahal zuena. "Pezeta asko zen orduan, zentimoren batzuk emango genituen".

Galdera batzuei erantzun eta gero, txanpon batzuen truke eros zitezkeen bulak erretoire-etxean. "Pezeta bana-edo balio zuten. Bazen zerbait garai hartarako". Aipatu genuenez, bulak txartel modukoak ziren eta, hildakoaren gainean jartzen ziren, errosarioa esatera haren etxera joandakoa. Bulek bazuten beste eginkizun bat ere: "Garizuma guztian zehar haragia jateko libre zinen, bulak pagatuz gero. Ai, ai, ai! Dirua-ren balioa!! Bijilia, Aste Santuan eta beste

bi edo hiru txandatan izaten zen urtean zehar. "Bula hartzen ez bazenuen, ordea, urte guztiko ostiraletan egin behar zenion haragiari barau". Kontaketa polita Maria Luisak mahaira ekarri duena; "gure etxean oso gutxitan jaten genuen haragia. Egun batean, amak haragia arrozarekin pres-tatu eta gero, bijilia eguna zela jabetu ginen. 'Zer egin behar dugu orain?' amak eta, on Romanengana bidali ninduen. Apaizak 'utz ezazue haragia biharko, jango duzue bihar eta' esan zidan. Sukaldeko armairuaren gainean utzi genuen kazuela, agindu bezala. Pentsa ezazu zertarainoko inuxenteak ginen". San Jose egunean arkumea jateko ohitura zen. Egun hura ostiralarekin egokitzen bazen, Aita Santuaren dispensa behar zen arkumea jateko.

ESKOLATIK MEZETARA, MOJAK LAGUN

Eskolatik mezetara askotan joaten ziren mojekin. "Mojetan genbiltzala, ilaran jarrita joaten ginen mezetara. Txikienak aurrean eta zaharragoak atzeraxeago, zuzen-zuzen denak meza nagusira". Meza nagusiarekin ez ziren bukatzen igandeko egin-beharrak, "arratsaldeko laurak eta erdietan bezperak izaten ziren urte guztian igandeko, eta guk, hiruretarako joan behar genuen

kolegiora kantuak entsegatzera". Bezperatan errosarioa errezatzen zuen apaizak eta kantu bereziak abesten ziren. Kontu bat eta beste, igande ia osoa errezatzen igarotzen zuten mojetako ikasleek. Baina ez, ez. Ez omen zen horretan amaitzen arratsaldea: "Bandak Villabonako plazan eskaintzen zuen emanaldira joatea debekatuta geneukan neskek. Tentaziorik ez izatearren, paseatzera

eramaten gintuzten mojek. Pixka bat aurretatzen baginen, kastigua izaten genuen: Buel-takoan errosarioa esatera kapillara" gogoratu dute barrezka. "Ama Birjinaren edo San Joseren nobenak egokitzen baldin baziren, iluntzeko zazpiretan berriz ere denak elizara. Orduan ez ginen mojekin joaten, gure erara baizik. Lan handia egiten zen guztia lorez txukun apaintzen".

MISIOAK ETA PROZESIOAK, ELIZBARRUTIAN EDO KALEAN



**Roberto
Garate**

"Kandela asko biltzen zen elizaren sarreran. Guztiak erre arte edukitzen ziren piztuta. Gu guardian egoten ginen"

Aste Santua zetorreanean iristen zen misioen garaia. "Misioak Aste Santurako prepa-razioa ziren. Konfesatu, pekatu guztiak esan eta garbi-garbi geratzen ginen. Konfesio generala zen". Ohitura bat eta beste, behin baino gehiagotan konfesatzen ziren ordu-

ko gazteak, "Jesus, urtean zehar askotan konfesatzen ginen gu! Astero-astero. Aste Santuaren aurretik oraindik ere egiten dira ejer-zizioak "baina orduan, denak joaten ginen errezatzerara. Apaiza tabernatik tabernara igual pasatzen zen, barruan zeudenak elizara eramateko". Misioez gain, prozesioak ere oso ugariak ziren, "Aste Santuan prozesio asko izaten zen baina, baita urtean zehar ere. Jesusen Bihotza egunean Amasan izaten zen prozesioa eta jende ugari biltzen zen. Gorputz egunean, urtean behin, Amasako elizatik Jauna atera eta Santa Krutz ermitaraino eramaten zen prozesioan, Ermitari buelta eman eta berriro ere San Martin elizara itzultzen zen. Villabonako Udaletik Amasako elizara etortzen ziren ordez-

kariak. Prozesioaren aurretik, txistua eta soina jotzen zen eta ibilbidea egin eta gero, Seroetxen hamaiketako izaten zen; gazta, ogia eta ardoa. 1945 urteko Gorputz egu-



Amasako Santa Krutz ermita lorez apainduta, Gorputz egunean.



Maiatzeko prozesioan, Maritxu Mendizabal abanderada.

neko gertaera latza gogoan dute hizlariek. "Prozesioa Amasako elizara sartzera zihola, kanpaiaren mingaina erori zen goitik behera. Pisu handia du puska horrek eta kirtena luzea. Denak ilaran joaten ginen baina, ez zuen azpian inor harrapatu, esker-rrak!". Ostegun Santu egunean, jendeak kandelak ekartzen zituen Amasako elizara, "kandela asko biltzen zen elizaren sarreran. Guztiak erre arte edukitzen ziren piztuta. Gu guardian egoten ginen, ordubeteko txandatan. Sakristitik pastak eta ardo goxoa ematen zizkiguten. Gau guztia ere pasa izan nuen guardian" azaldu du Robertok. Ostegun eta Ostiral Santu egunetan kalbarioak errezatu eta prozesioan ateratzen ziren arratsaldean, Villabonako bandak musika jartzen zuela. "Pena handia da ohitura hura galdu izana". Aste Santuen aurretik, ordea, bazen beste ohitura bat ere, "errepiderik ez zen garaian, bide zaharretik, Amasako elizatik Villabonara jaisten ginen errezatuz. Villabonako elizan beste errezo batzuk egin eta gero, bueltan itzultzen ginen. Jubilia

deitzen zitzaion eta urtean behin egiten genuen, gogo handiarekin egin ere".

Villabonan, Gorputz eguna eta hurrengo igandean egiten zen prozesioa. Bai Amasan eta baita Villabonan ere, egun horietarako, lorez apaintzen zuten ibilbide guztia. Larrosak eta ezpata belarrak erabiltzen ziren batik bat ingurua apaintzeko. Villabonan elizatik plazara egiten zuten bidea eta plazan aldare handi bat jartzen zen. Ibilbideaz gain, etxeetako balkoiak ere apaintzen zituzten. "Balkoi askotan 'sobrekama' dotoreak eta larrosa hostoekin JHS (Jesus Hombre Salvador) hizkiak idazten ziren apain-apain. Jesus pasatzerako, ondo apaintzen ziren bazterrak". Elizatik abiatu eta kaleko buelta egiten zen, Izkinatik barrena, plazaraino. Kustodian sartuta eramaten zen Jauna. "Urre koloreko medalla handi baten antza zuen kustodiak. Erdierdian, borobil-borobila, kristala. Hortxe sartzen zen Ostia Santua". Prozesioan zehar, erretoreak eramaten zuen kustodia. Hori bai, eskuekin ukitu gabe, sotanaren gaineko kasuilla oso berezia zenez, eskuak babesteko ere erabiltzen baitzen. "Erretorea berriz, lau gizonek eusten zuten palioaren azpian joaten zen. Palioa lau makilen gainean zabalduetako oihala zen, aterpe

mugikor modukoa. Aterki handi bat balitz bezala. Palioaren atzetik joaten ziren gainerako apaizak eta haien atzetik, prozesioko jendea".

Aste Santuko gainerako egunetan eta bestelako jai egun berezietan, santuen irudi ezberdinak ateratzen zituzten. "Villabonan, Ama Doloreetakoarena edo San Juanena. Eliza bakoitzak prozesioetan ateratzeko bere irudiak zituen". San Isidro egunean, esaterako, Amasan prozesio garrantzitsua egiten zen. Madrildik trenetaz ekarri zuten San Isidoren estatua kalea atereaz. Amasan santu ugariaren irudiak daude, besteak beste, San Isidorena, San Rokerena eta San Martinena... baina prozesioetan, Ama Doloreetakoa eta San Juan, Jesukristo, Ama Birjina, San Luis eta San Isidro ateratzen zituzten. Villabonako elizak bost aldare zituen garai batean. Aldare bakoitzak bazuen bere santua. Elizaren irteeran San Antonio eta San Inazio zeuden, alde banatan. Ama Doloreetakoa, San Juan eta Santio -zaldi eta guzti- ere bai, besteren artean. "Eliza berri zutenean, hainbat santu kendu egin zuten. Amasako erretore-etxeko ganbaran daude haietako batzuk eta Villabonako sakristian besteak".



Ostiral Santu eguneko prozesioan Iñaki Iraola San Migelez jantzita. Inguruan aingeruak.

KANPANDORREAN KANPAIAK

Amasako kanpandorrearen historia ezaguna izango zaizu jada. Gogoratzen nola kanpai handi batetik hiru egin zituztela genion? Bueltak emanez martxan jartzen diren Gipuzkoako kanpairik handienak direla ere bagenion. Ez duzula gogoan? Aldizkariaren 2. zenbakian, "Amasako elizako kan-

paiak; batetik hiru" atalean aurkituko duzu erantzuna. Villabonan, kanpandorreko kanpai handia jotzen zen. Hiru kanpaikada izaten ziren eguneko hiru kanpaialditan. Jai egunetan, berriz, kanpai bereziak entzuten ziren Anjelusaren garaian eta meza nagusiaren aurretik. Kanpanilla edo kan-

pai txikia ere jotzen zuten. "Amasan nahiz Villabonan sakristitik jotzen zen kanpai txikia; kanpandorrean bazegoen ere, sakristitik eragiteko modua eratuta baitzegoen. Apaizak, mezaren aurretik jotzen zuen kanpai txikia". Jai egunetako mezak iragartzeko, hiru aldiz jotzen zituzten kanpaiak,



Maritxu Gonzalez

"Agonia hogeita hamairu kanpaikaderek osatzen zuten. Jesukristok adina urte"

"Ihendabizikoz, elizkizuna hasteko ordu erdi-edo falta zela, hurreratzen ari zenean gero, eta, sarreran azkenik".

Norbait hiltzen zenean agonia jotzen zen, orain bezalaxe. "Agonia hogeita hamairu kanpaikaderek osatzen zuten, Jesukristok adina urte. Kanpaien hotsa ezberdina zen emakumea edo gizasemea hiltzen zenean, baita haurren bat hiltzen zenean ere". Aurreko zenbakian genionez, elizakoak egitea deitzen zitzaion apaiza eta monagilloak hildakoaren etxera azken-igurtzia ematera joateari. "Elizakoak egitera abiatzean, sei kanpaikada jotzen ziren elizan. Bidean, monagilloa apaizaren aurretik joaten zen kanpanillarekin: ttin-ttin-ttin-ttin-ttin".



Villabonako elizaren kanpandorra.

APAIZAREN JANTZIAK LITURGIAREN ARABERA

Apaizak sotana beltza janzten zuen kalerako eta elizkizunerako alba txuria. Garaiaren eta egunaren arabera, kolore ezberdineko kasuillak janzten zituzten albaren gainetik. Eta lepotik zintzilik estola. "Lau koloretako kasuillak edo kapak zituzten, atzera eta aurrera janzten zire-

nak: gorria, berdea, txuria eta morea". Entierrotarako kasuilla beltza erabiltzen zuten, noski. Maritxuk azaldu duenez, "Amasan kasuilla urdina ere bazen. Dotorre askoa. Ama Birjinetarako janzten zuten apaizak". Liturgiaren arabera banatzen ziren garaiak: Aste Santua, Pazkoal-

dia, Eguberriak... Eta mezetara zihoazen herritarrak ere ahalik eta apainen jantzita joaten ziren, jai egunetan eta igandetan bereziki. "Emakumeak mantilla burutik behera jantzita joan behar genuen nahi eta nahi ez eta, kopeta ondo tapatuta, gainera!".

MARIAREN ALABAK ETA LUISTARRAK

Komunio handia egin eta gero, Mariaren Alabak kongregazioko kide egiten zen hainbat neska. Mutilak, berriz, Luistarren kongregaziokoak. Oro har, ezkontzen ziren artean izaten ziren kongregazioko kide. "Nahi zuenak ematen zuen izena eta hilean kuota bat ordaindu behar zen. Kongregazioko kideak, hilean behin komunioa hartzera behartuta geunden". Kongregazio bakoitzak, biltzeko egun eta ordu zehatza zuen eta bakoitzak bere zintarekin joan behar zuen elizkizun horretara. "Kolore ezberdineko zintak zituzten kongregazioek. Medalla modukoak. Hilean behin besterik ez genituen janzten, elizkizun horietara joateko soilik". Villabonan, Mariaren Alabak hileko lehen igandetan biltzen ziren, goizeko seirak eta erdietan edo zazpiretan. Meza horretara neskek bakarrik joaten ziren eta Luistarren elizkizunetara mutilak besterik ez. "Luistarrak hileko azken igandetan biltzen ginen, goizeko bederatzietan". Ordulegiaren alde nabarmen hori nondik nora zetorren galdetutakoan, "garai hartan neskame asko izaten zen. Guztiek elizara etortzeko aukera izan genezan jartzen zen meza goizean goiz. Gizon jendea morroi joaten ez zenez, ez zegoen arazorik" erantzun

dute. Meza eta gero amaitu egiten zen egitekoa. "Urtean behin, Ama Birjinaren egunean Mariaren Alabek eta Luis Gonzagaren egunean Luistarrek, festa izaten zuten. Ezer berezirik gabe baina, meza ederragoa izaten zen egun horietan. Mezaren ondoren, ekintzaren batzuk antolatzen ziren Luis Gonzagaren egunean". Apaiza oso zorrotza zenez, kongregazioko kideren bat falta ote zen begiratzen zuen. Kongregazioetan lehendakariak izaten ziren, Amasan, Mariaren Alaben lehendakari Felixiana Jauregi, Kontxision Artola edo Kandi-



Anjel Egiño

"Luistarrak hileko azken igandetan biltzen ginen, goizeko bederatzietan"

da Iturbe izan ziren, besteak beste. Luistarrak, berriz, Juan Sorrondegi. Aipatuz gain, baziren kongregazio gehiago ere; Acción Católica zuen izena haietako batek eta, neskek eta mutilak biltzen ziren bertan. Ezkontuen kongregazioa Jesusen Bihotzarena zen. Elkarte bakoitzak bere intsignia zuen.



Mariaren Alabak Amasan, meza bukatu eta gero.

Erljioa (eta bi)

ERRESPETUA PEKATUAREN GAINETIK

"Ez haurtzarorik eta gaztetasunik ere ez genuen izan, dena pekatua zenez, ezin bainuen ezer ere egin. Komunioa hartzera joan eta hortzekin ukitzen bagenuen, hura ere pekatu! Dena txarra zen; infernua. Eta hitz hura ez genuen entzun ere egin nahi". Elizaren eta erlijioaren alderdi onaz ere hitz egin dute, "eliza oso gogorra zen. Maitasu-

na behar zela eta maitasuna behar zela zioten arren, bikote batek musu emanaz gero, pekatua! Punta batetik bestera joan gara. Oraingo libertatea gehiegizkoa da. Egia da oso lotuta geundela eta hala ez zegoena markatua izaten zela. Baina, dena ez zen hain txarra. Gauza askotarako ona zen; errespetu gehiago genien gurasoei edo pertsona hel-

duei. Ezinduei ere gehiago laguntzen genien. Mojek pertsonekiko errespetua erakusten ziguten. Alde horretatik, askoz ere hobeto ikasten genuen mezu hori". Elizbarrutiak bazituen noizean behin elkartzen ziren batzordeak, "orain bezala, elizako juntak zeuden orduan ere. Elizkizunetatik kanpo bestelako ekintzak antolatzeaz arduratzen ziren".

Elizaren esanak ondo baino hobeto bete zituzten gure lagunek. Oraindik ere ondo gogoan dituzte garai hartan ikasitako errezoak, baita garai ezberdinetako ohiturak ere. Bejondeizuela!



Joxe Ugartemendia



Pello Iribar



Maria Luisa Zalakain



Pako Etxenike



Pakita Lasa



Roberto Garate



Maritxu Gonzalez



Anjel Egiño

...ETA HURRENGOAN ZER:

Samartinen bezperatan, zer hoberik garai bateko festen berri ematea baino! Orduan ere ez zen festa girorik falta eta hamaika ekintza egiten zuten ondo pasatzeko. Tartean, tradizio handia duen oilasko-jokoa. Euskal dantzen edo herri-kirolen erakustaldiek ez zuten kale egiten. Musikak ere bere tartea izaten zuen, noski. Baita elizkizunek ere! Laster, 11. zenbakian izango duzue horren guztiaren berri, azaroaren hasieran banatuko den aldizkarian. Ordura arte, segi ondo eta hasi aurtengo Samartinetarako prestatzen!



ARGITARATZAILEAK



Amasa-Villabonako Udala



Manuel Larramendi Kultur Bazkuna

Argitaratzaileak: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna, Amasa-Villabonako Udalaren dirulaguntzaz. Ekoizlea: Erroitz B.M. Zuzendaritza eta erredakzioa: Ainhoa Arozena. Maketazioa: Maddi Trutxuelo. Argazkiak: Xabi Ubeda, Erretratu zaharren liburua (Larramendi Bazkuna) eta artxibo ezberdinak. Inprimaketa: Sortu grafikak (Zizurkil). ISSN: 1698-7330. Lege gordailua: SS-1289/04. Tirada: 1.400 ale.

EKOIZLEA



BABESLEA



Eusko Jaurlaritza KULTURA SAILA